



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)

Aldi baterako kontratazio-zerrenda sortzeko deialdia

***Lanpostua: Landareen inbentarioko teknikari  
espezialista***

***GALDERAK***

***Lehen ariketa***

***Denbora, gehienez: 60 min.***

- **Ez ireki esan arte.**
- **BOLALUMA URDINA EDO BELTZA besterik ez erabili.**
- **TIPEX© eta antzekoak erabil daitezke.**
- **30 galdera labur dira.**
- **Laukiz inguratutako espazioan erantzun behar duzu.**

1) Gasteizko zuhaitziak kudeatu eta babesteko ordenantzaren arabera, honakoa da landaretza-eremua:

2) Gasteizko zuhaitziak kudeatu eta babesteko ordenantzaren arabera, honakoa da sustraien oinarria:

3) Gasteizko zuhaitzak kudeatu eta babesteko ordenantzaren arabera, zuhaitzaren ardatzetik eraikuntza-lerroraino utzi beharreko gutxieneko distantzia \_\_\_\_\_ metrokoa da.

4) Gasteizko zuhaitzak kudeatu eta babesteko ordenantzaren arabera, urbanizazio berriko proiektuetan, zuhaitzak lerrokaduran jarri ahal izateko espaloiak gutxienez \_\_\_\_\_ metroko zabalera izan beharko du.

5) Gasteizko zuhaitzak kudeatu eta babesteko ordenantzaren arabera, zuhaitz-adaburu zabaleko zuhaitzen kasuan gutxieneko landare-tartea \_\_\_\_\_ metrokoa da.

6) Gasteizko zuhaitzak kudeatu eta babesteko ordenantzaren arabera, zoladura aldatzeko lanetan eta sustrai-kopurua handia den guneetan, lurraren lehenengo 10 zentimetroak \_\_\_\_\_ ordezkaturiko dira zuhaitzak babeste aldera.

- 7) Berdeguneak sortzeko ordenantzaren arabera, landareak ureztatzeko erabiliko den urak ondoko ezaugarri fisikokimikoak izan beharko ditu: Ph maila:

- 8) Berdeguneak sortzeko ordenantzaren arabera, landareak ureztatzeko erabiliko den urak ondoko ezaugarri fisikokimikoak izan beharko ditu: Gogortasuna:  $\text{CO}_3\text{Ca}$  \_\_\_\_\_ baino gutxiago

- 9) Hauetako zeinetan da ezaguna tinta izeneko gaixotasuna? Crataegus - Atxapar - Trachycarpus - Castanea sativa

- 10) Hauetako zein landarek hartzen du Chalariosis izeneko gaixotasuna? Cupressus - Salix - Gurbitz - Quercus

- 11) Plano bat UTM WGS84 delakoan dagoela esateak zer adierazten du?

- 12) Zer esan nahi du DXF akronimoak?

- 13) Zer esan nahi du GIS terminoak?

**14) Zein da “raster” delako datuen eta bektore datuen arteko aldea?**

**15) Topologiaz hitz egiten dugunean, zeri buruz ari gara AutoCAD Map bezalako inguruneak aipatzen ditugunean?**

**16) Marrazteko oinarrizko entitateak AutoCAD Map ingurunean**

**17) Zertarako balio dute txantiloiek (Layouts) AutoCAD Map ingurunean?**

**18) Kanpoko datuak inportatzeko, adibidez ESRI Shape, MapInfo MIF/MID edo Microstation DGN formatua dutenak, zein komando edo prozesua baliatu behar da?**

**19) Zertarako balio dute AutoCAD Map delakoaren planoarekin lotutako “Objektuaren datuak” (Object Data) izenekoak ?**

**20) Nola bil daiteke AutoCAD Map delakoaren plano batean agertzen diren objektuei lotutako informazioa?**

*Probaren zati honi erantzuteko, aurreko galderak erantzun ondoren, eskatu ezazu laguntza-euskarria eta jo ezazu irudiak ikusgai dauden gunera. Eraman itzazu ekarri dituzun gauza guztiak, izan ere galdera hauei erantzun ondoren, galdetegia jaso egingo zaizu eta azterketa gela utzi beharko duzu.*

**21) Irudia. Adierazi zein landare den**

**22) Irudia. Adierazi zein landare den**

**23) Irudia. Adierazi zein landare den**

**24) Irudia. Adierazi zein landare den**

**25) Irudia. Adierazi zein landare den**

**26) Irudia. Adierazi zein landare den**

**27) Adierazi landare horrek zein arazo duen**

**28) Adierazi landare horrek zein arazo duen**

**29) Adierazi landare horrek zein arazo duen**

**30) Adierazi landare horrek zein arazo duen**